

IRABAZI ITURRIAK

Gure proiektuari hasiera emateko, enpresaren sortzaileok inbertsio txiki bat egingo dugu, hasiera batean izango ditugun kostuei aurre egiteko. Enpresaren kapital soziala 2000 €-koa izango da.



Kapital sozialaz gain, beste irabazi-iturri garrantzitsu batzuk izango ditugu. Gure zerbitzua gizartearentzat onuragarria da, gure inguruko antzeko enpresek baino askoz ere prezio baxuagoan, kalitate hobeko zerbitzu bat eskaintzen baitugu. Honi esker, diru laguntzak jasoko ditugu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren aldetik.

Bestalde, bezeroei kobratutako dirua (5€/orduko) ere irabazi-iturri handia izango da. Nahiz eta prezioa baxua den, gure sistemaren eraginkortasuna funtsezkoa izango da irabazi hauek handitzeko. Eraginkortasun online saioei esker lortuko dugu batez ere .

Hala ere, esan bezala, gure enpresaren helburua ez da izugarritzko irabaziak izatea, ikasleei eta batez ere zailtasun ekonomikoak izan ditzazketen ikasleei beren ikasketeten laguntzea baizik.

4€/orduko	15 irakasle/saioko	4h/eguneko	21egun/hilabete ko	Kostu aldakorrak kontuan hartuta (50€)
3€x15= 45€/saioko		45€x4=180€/egun eko	180€x21=3780€	3780€-50€= 3730€

Hilabetean lortzen dugunaren %10a gorde egingo dugu etorkizunean enpresa bezala hazten joateko. Lehenengo hilabetan: 378€

5 irakasle izango garenez, eta bakoitzak hilabetean 16 ordu sartuko dituenaz, irakasle bakoitzak kobratuko duguna: 680.4€/hilabeteko, hau da, 10.63€/orduko.